

Bermeo, 2020ko irailaren 4a

Familia agurgarria:

Ikasturte berriaren hasierara hurbiltzen ari gara. Ikastola prest dago bere historia hurbilenean bizi izan duen erronkarik zorrotzenari erantzuteko.

Ikastola gidatzeak duen ardurak gure egunerokoa gidatzen du eta hortik hartu ditugu hartutako erabakiak. Aurrera eramango dugun plana malgua da beti ere, pandemia honen noranzkoa zein izan daitekeen jakin ez dakigu eta.

Baina agertoki desberdinak prest ditugu, ikastolak eskeintzen duen kalitatea, arlo guztietan ziurtatzeko. Horretarako, izaera solidarioa, konpromisoa, jarrera sortzailea eta, batez ere, erantzukizun pertsonala eta kolektiboa balioetsi beharko ditugu proposatutako planek beren helburua lor dezaten.

Horretarako, familiok, neurri egokiak hartu eta errespetatu beharko ditugu, gure seme-alabak mentalizatu eta gure jarrera, jokaera eta portaerak eredugarri bihurtuz. Zalantzarik gabe, jokatu behar dugun "norgehiagoka honek" taldean aritzea eskatzen du, ibilbide-orria salbuespenik gabe errespetatuz.

Segurtasuna bermatuta, gure hezkuntza-eredu eta proiektu propioa elikatzen jarraitzeko ardura dugu, gure haur eta gazte bakoitzaren beharrei modu integralean erantzunez. Presta dezagun guztion artean gure seme-alaben oraina eta etorkizuna

ESKERRIK ASKO ETA AURRERA!

Zuzendaritza taldea

Datorkigun ikasturtea antolatzeko kontuan izan ditugun helburu eta ildo nagusiak aurkezten dizkizuegu:

1. Eleizalde ikastolako ikasle, langile eta familia guztion osasuna babestea.
2. Osasun, lan eta hezkuntza sailek ezarritako araudiak eta dekretuak betetzea, indarrean dauden jardun-protokoloak garatuz eta aplikatuz.
3. Ikastola gisa dugun eginkizunari erantzutea, gure seme-alaben hezkuntza-premiei eta garapen pertsonalari modu integralean erantzunez.
4. Gure familien kontziliazioa eta antolaketa erraztea, COVID19ak sortutako ziurgabetasun-egoera honetan.

Horretarako, 2020-2021 ikasturterako Eleizalde ikastolak aurkeztutako urteko planari begira egindako gogoeta eta erabakiak hartzeko erabili diren printzipioak hauek izan dira:

- Ager dakigukeen edozein egoeraren aurrean, hurrengo ikasturterako plangintza eta antolaketa aurreratzea, inprobisazio-egoerak saihestu eta ikasleei behar bezalako arreta ematen diegula ziurtatzeko.
- “Normaltasun berria” deituriko egoeraren aurrean, 2020-2021 ikasturte hasieran gure ikasle guztien irakaskuntza presentziala lehenetsiko dugu. Horretarako, administrazioak ezarritako araudi eta protokolo berriek gure ikastolaren antolaketa orokorrean tradizionalki barneratuta dauden zenbait prozesutan zuzeneko eragina izango dute. Horrek, erabakiak hartu, doikuntzak proposatu eta aldaketak egitera eramango gaitu, neurriak zehatz-mehatz denok gauzatu eta errespetatzera behartuz.
- Gaixotasunaren berragerpen batek sozialki beste neurri batzuk hartzera behartzen bagaitu, ikastolak kontingentzia-plana ere badu, eta horri esker, ordu gutxiren buruan “normaltasun berriko” egoera batetik “mistoa” deritzon beste batera igaro ahal izango ginateke. Egoera horretan, zenbait doikuntza egingo lirateke ikasle gazteen presentzialtasuna lehenetsiz.
- Gure proposamen, plan eta diseinu guztiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak esaten digunaren menpe daude eta, horregatik, dokumentu hau asmo-adierazpen gisa ulertu behar dugu, malgua izango dena eta 2020-2021 ikasturtean gertatzen diren berrikuntza edo aldaketetara egokitzeko modukoa.